

NOLAKOA BEHAR DU EKINTZA
KOMUNITARIOAREN POLITIKA PUBLIKOAK
GIPUZKOAN?

SINTESI-TXOSTENA

2.tailerra: Non jarri nahi dugu begirada? Zein dira estrategiak?

2022ko otsailak 18, herri ertain-handiak/otsailak 22, herri txikiak



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Tailerraren **helburuak:**

- Toki- eta lurralde-mailako erakundeetatik ekintza komunitarioa bultzatzeko estrategiak lantzea, identifikatutako erronkak oinarrian hartuta

Sintesi-txosten honetan tailerretan (herri ertain eta handietako ordezkariekin otsailaren 18an egindakoa, eta herri txikietako ordezkariekin otsailaren 22an egindakoa) atera ziren edukiak antolatu ditugu, erronka bakoitzaren helburu estrategikoak zehaztuz eta helburuak garatzeko proposatu ziren ideiak edo ekintza-proposamenak ere jasoz:



1. ERRONKA: Antolatuta dauden herritarrak: nola lan egin ehun soziala indartu eta elkarteek proiektu sendoak izateko?	
HELBURU ESTRATEGIKOAK	PROPOSAMENAK
1.1. Errealitatea ezagutzea eta aztertzea	<p>1.1.1. Gipuzkoako elkarte eta eragileen errealitate desberdinak jaso: a) zer izaera dute elkarteek? b) zer nolako harremana dute tokiko erakundeekin?</p> <p>1.1.2. Elkarteek dituzten ardurak eta lan-kargak ezagutu, kontuan hartuta gehiengo boluntarioak direla.</p> <p>1.1.3. COVID-19aren krisitik eratorritako egoerak zer nolako eragina izan duen aztertu, behar berriak ote dituzten jaso; eta azken bi urte hauetan azaleratutako erronka berriei nola erantzun dieten ezagutu.</p> <p>1.1.4. Orokorrean, gaur egungo elkarten ahultze prozesuaren zergatiak ezagutu. Elkarten etorkizuna bermatzeko eta neke/frustrazioak kudeatzeko, etorkizunaz hausnartzeko tarteak hartu.</p>
1.2. Tokiko erakundeen eta elkarten arteko distantziak laburtzea	<p>1.2.1. Harremanak landu eta elkarrizketa sustatu: dirulaguntzetako gestioetatik harago, bestelako elkar ezagutzarako harremanak landu, berdinen arteko gertuko harremanak sustatu (herritarrak ahaldundu eta tokiko erakundeak leundu).</p> <p>1.2.1. Elkarteei aitortza egin, eragileen lana eta ibilbidea aitortuz, bai eurei zuzenean adierazita, bai herri mailako aitortza eginez ere.</p> <p>1.2.2. Elkarteei ikusgarritasuna eman: euren jarduera komunikatzeko baliabideak eskaini, adibidez (web-atariak...).</p>
1.3. Baliabideak eskaintzea	<p>1.3.1. Dirulaguntzak erraztea: eskabide eta justifikazioek eskatzen dituzten dokumentazio eta betebeharrak traba ez izatea ahalbidetu.</p> <p>1.3.2. Proiektuak edo/eta elkarten lan-egiturak diruz lagundu behar diren gogoeta egin.</p> <p>1.3.3. Dirulaguntzei dagokionez, eragileen jarduera eta beharrak sakonago ezagutu eta dirulaguntza lerro desberdinei buruzko aholkularitza eman.</p> <p>1.3.4. Herri txikiei begira, izaera juridiko gabeko elkarteei trataera berdina eman</p> <p>1.3.5. Prestakuntza eskaini, elkarteak ahaldundu.</p> <p>1.3.6. Elkarteak eta elkarteetako kideak ahaldundu (konfiantza eskaini, autonomiaz jarduten utzi, beraiei entzun/erantzun). Ekimenen antolaketan eta proiektuen garapenean autonomia eskaini (sostengua bermatu, jarraipena egiteaz arduratuko den pertsona bat egotea bermatu)</p>
1.4. Elkar ezagutza eta elkarlana sustatzea	<p>1.4.1. Elkarren artean lan egiteko espazioak eskaini: elkarten interesekoa izan daitekeen edo zeharkako gai baten inguruan bildu eta elkarren arteko harremanak eraiki.</p> <p>1.4.2. Behar komunitario berdinen bueltan diharduten elkarteek proiektu komunak garatzeko bideak erraztu; adibidez, egun elkarteetatik landu gabe gelditzen diren behar komunitarioak zeintzuk diren identifikatu eta posible bada hauei erantzuteko proiektu komunak sustatu, komunitatea indartzea helburu.</p>



2. ERRONKA: Antolatuta ez dauden herritarrak: nola iritsi, iristen ez garen horiengana?	
HELBURU ESTRATEGIKOAK	PROPOSAMENAK
2.1. Diagnostikoa edo mapeoa egitea	<p>2.1.1. Norengana eta nora iristen ez garen jakitea. Arrazoiak identifikatzea.</p> <p>2.1.2. Komunitatea etengabe aldatzen ari denez, mapeoa ere etengabe eguneratua izateko moduak bilatu</p>
2.2. Komunitatera hurbiltzea eta komunitatea eraikitzea	<p>2.2.1. Komunitatea eraikitzeko komunitatera hurbiltzea, eta hurbiltzeko modu berriak bilatzea; betikoengana iristeaz harago, beste batzuegana ere iristeko: a) administrazioa eta komunitatearen arteko “nexoak” edo “antenak” bilatu, “hurbileko edo konstante” direnen bitartez iristeko “ausenteengana”; aliatuak identifikatzea eta sareak eraikitzea; b) pertsonekin harreman zuzena duten profesionalekin planifikatu komunitatea sortzeko bideak.</p> <p>2.2.2. Komunitatea eraikitze bidean, administrazio zerbizuen arteko elkarlana, informazio trukaketa eta koordinazioa hobetzea (“Big Data” edo datuen trukaketa inteligentea); izan ere, administrazioaren zerbizuren batetik pasa ohi dira pertsona gehienak.</p> <p>2.2.3. Harremanak, komunitatea eraikitzeko tresna nagusia izatea: a) harremanak zaintzea eta mimatzea; b) komunitatearekin lantzeko betebeharra duten profesionalen kompetentzietan, enpatia, entzuteko gaitasuna, binkuloak sortzeko gaitasuna... bezalako alderdiak eskatzea.</p> <p>2.2.4. Komunitatea eraikitzeko, komunitatea batzen duen proiektu komunak identifikatzea, helburu komunak lantzea. Horretarako, behar/kezka/interes indibidualak zeintzuk diren ezagutzea gakoa da.</p> <p>2.2.5. Proiektu komunek bertan parte hartzen dutenei ekarpena egitea, asegarriak, gozagarriak izatea.</p> <p>2.2.6. Komunikazio-estrategiak hartzailearen arabera diseinatzea (ez da berdin gazte, adineko edo haurrei zuzentzea).</p>
2.3. Komunitatean ez parte hartzeko arrazoiengan arakatzea	<p>2.3.1. Lehen mailako beharrak asetuta ez duenak, zaila du komunitatean parte hartzea. Egoera zaugarrian daudenak nola ekarri komunitatera (oinarrizko behar hauek asetzeko zerbizuen bidez)</p> <p>2.3.2. Gizarte zerbitzu, osasun-zerbitzu eta oro har ekipamenduetan ikuspegi komunitarioa txertatu. Harrera zaintzea ahalbidetu.</p> <p>2.3.3. Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen estigma arindu, gutxitzea</p> <p>2.3.4. Administrazioarekiko mesfidantza: elkar ezagutza eta konfiantza lantzea. Zerbitzu publikoak modu esplizituan, modu ulerkorragoan ezagutzera eman.</p> <p>2.3.5. “Denbora galtzearen sententzia”: komunitateak ematen dizun emaitza positiboetan arreta jartzea.</p>



3. ERRONKA: Azpiegitura sozialak/Espazio publikoa: Nola egin azpiegiturek bizitza komunitarioa sustatu dezaten, harremanetarako edo elkartzeko gune izan daitezen?	
HELBURU ESTRATEGIKOAK	PROPOSAMENAK
3.1. Programazioa	<p>3.1.1. Programatzen diren ekintzak espazio irekietan antolatzea</p> <p>3.1.2. Programatu gabeko espazio gehiago hutsik, herritarren irudimenari tokia egiteko: modu sotil baten erabilera sustatu edo erraztu behar da (erabilerarako irizpideak ezarri, etab.)</p>
3.2. Espazioaren antolamendua	<p>3.2.1. Espazio publikoen antolamendua irekia izatea, elkar ekintza sustatzeko modukoak. Bai erakunde barruetan zein kanpo espazioak.</p> <p>3.2.2. Hirigintza parte-hartzailea izatea: a) Espazioen diseinua birpentsatu behar da: harrera egokiak egin ahal izateko: b) Azpiegitura edo espazio baten diseinuan hasieratik Ekintza Komunitarioaren begirada txertatu, hau da, azpiegitura eta espazio horiek harremanetarako eta elkartzeko espazio izan daitezen aurreikusit. Lanketa hau herritarrekin batera egin; umeei, adinekoei galdetu...; Espazioen diseinuak herritarrekin epe luzera begira eta ikuspegi estrategiko batetik egitea garrantzitsua, momentuko beharrei erantzuteaz harago...;</p> <p>3.2.3. Herriko plaza, herri-ostua, frontoia, beste udal-zerbitzuak... gertu kokatu .Herri txikien kasuan herri-ostuaren garrantzia azpimarratu da, zaindu beharreko zerbitzu bat dela azpimarratuz.</p> <p>3.2.4. Ekipamenduen titularitatea partekatua izatea sail ezberdinen artean</p>
3.3. Azpiegitura eta espazioen erabilera	<p>3.3.1. Azpiegiturak deszentralizatzea, erabilerak irekitzea eta erabilera komunitarioak lantzea, eraginkortasuna, jasangarritasunaren printzipioak oinarrian hartuta.</p> <p>3.3.2. Hainbat espazioen erabilera optimizatzea, eskolako patioa adibidez.</p> <p>3.3.3. Kudeaketa komunitarioan sakontzea: Elkarrekin espazioen erabilera lagatzen zaienean, lagapenaren titularitatea partekatua izatea</p> <p>3.3.4. Espazio eta erabiltzaileen artean saretzea lantzea</p> <p>3.3.5. Erabilera anitzak sor dezaketen gatazkak lantzea (bai teknikarien artean, baita erabiltzaileen artean ere). Erabilera anitzak arriskua du batzuen kalterako izatekoa ekitatearen printzipioa lantzea.</p> <p>3.3.6. Kasu batzuetan herritarrei espazio propioak eskaintzea ere beharrezkoa dela jabetzea, espazioa bere egin dezaten, nerabeen edo gazteen kasuan adibidez.</p>
3.4. Espazio publikoan elkarguneak identifikatzea	3.4.1. Azpiegiturarik ez dagoen tokietara begiratu eta elkarguneak zeintzuk diren ikusi
3.5. Kontzeptuen higienizazioa egitea	3.5.1. Erabiltzaileak, 'abonatuak' hiztegitik ezabatzea, ikuspegi komunitarioaren eraikuntzaren kontrako kontzeptuak direlako



4. ERRONKA: Sektorekako politikak: nola egin kultura/hezkuntza/berdintasun/osasun/hirigintza/ jasangarritasun... komunitario bat?	
HELBURU ESTRATEGIKOAK	PROPOSAMENAK
4.1. Tokiko eragileak ezagutzea eta harremanak/egitasmoak bultzatzea	<p>4.1.1. Herrian ditugun eragileak zein diren jakitea eta egiten dutena ezagutzea</p> <p>4.1.2. Eragileekin egindako esperientzia eta praktika onak kontuan hartzea komunitatean garatu behar diren ekintzetarako</p> <p>4.1.3. Eragileekin harremantzeko informazio-kanalak lantzea (erregistroak, datu-baseak...), askotan ez baita nahikoa kalera ateratzea.</p> <p>4.1.4. Eragileak/pertsonak entzuteko denbora hartzea, gure erantzunek beraien beharrak ase ditzaten.</p> <p>4.1.5. Departamenduetatik erabaki beharrean zer den gertatu behar dena, kalera ateratzea eragileekin harremantzerako.</p>
4.2. Harreman-sareak eraikitzeak, elkartzeko espazioak sortzea eta berezko topaguneak kontuan hartzea	<p>4.2.1. Lanerako/elkartzeko/harremantzeko espazioak/topaguneak eskaintzea. Komunitatearen behar zehatzetatik proiektuetara/topagune edo gune kolektiboetara jauzi egitea.</p> <p>4.2.2. Berez dauden, edo naturalak diren topaguneetan ere arreta jartzea (kale-espazioetan sortzen diren topaguneetan)</p> <p>4.2.3. Sektorea bata edo beste izanda ere, sektore bakoitzaren edukiez gain, harremanetarako guneak sortzen ari garen jabetzea eta gizarte-erronkekiko nola kokatzen garen ohartzea.</p>
4.3. Komunitatea aktibatzea	<p>4.3.1. Elkartzeko edo lanerako espazio formalak antolatzerakoan, askotan zailtasunak ditugu jendea erakartzeko edo elkartzeko. Dinamizatzailearen rolaz hausnartzea (frontoiko korredoreen figura), sareak lantzen lagunduko duena, apustu edo erronketan parte hartzerako motibatuko gaituena Profesionalen zati bat komunitariorako izatea.</p> <p>4.3.2. "Ekinez ikasi" egitasmoa bezalakoak martxan jartzea, sailen artean edo eragileen artean erronketan parte hartzerako eramango gaituen dinamika.</p>
4.4. Sektore bakoitzeko gizarte-erronkak identifikatzea	4.4.1. Sektore bakoitzak ikuspegi komunitariotik lantzeko dituen gizarte-erronkak mahai gainean jartzea eta lankeari ekitea Jasangarritasunean klima aldaketaren gaia; Kulturaren arloan erreferente kulturalen gaia, kultura-eredua...; hirigintzaren arloan, espazioen erabileraren eztabaida, espazio irekiagoak eta harremanetarako aukera emango dutenak....
4.5. Udal-antolamenduan urratsak ematea sektore/arloan desberdinetatik komunitarioki lan egiteko	<p>4.5.1. Udal bateko zerbitzu desberdinei entzutea eta galdetzea ikuspegi komunitarioak egin diezaioketen ekarpena zein den. Komunitarioa zer den hitz egin sail desberdinetan</p> <p>4.5.2. Sektore/alor desberdinen arteko konexioak egitea; behar bati erpin desberdinetatik erantzun ahal zaio eta horien arteko elkarrekin kontuan hartu behar ditugu. Elkarrekin harremanak sustatzeko proiektu konkretuak diseinatzea (adibidez: emakume taldeak eta eskolak herriko emakumeen inguruko unitate didaktikoa sortzea)</p>



	<p>4.5.3. Proiektuka lan egitea, eta proiektu bat abiatzen denean nor dagoen inplikaturik ikusi, bai barruan, bai kanpoan. Halaber, komunitarioaren kontzeptualizazioaz harago, proiektu bat abiatzen denean helburu zehatzetara jaitea, proiektua bideratzerakoan errazagoa izateko ikuspegi komunitario horren lanketa.</p> <p>4.5.4. Barne-prozesuak eta -dinamikak malguak, mugikorrak izatea; kanpokoak barruan isla izan behar du eta alderantziz.</p> <p>4.5.5. Udal-barnean ikuspegi honetara erakarri ezin ditugun sailletara iristeko estrategiak lantzea: gaia agenda politikoan txertatzea</p>
--	--

